

# UDALBERRI

USURBILGO UDALAREN ALDIZKARIA | 2017.07.27 | 9.ZBK

Joxe Martin Sagardia plaza, z/g - 20170 Usurbil (Gipuzkoa) | Telf: 943 371951 | www.usurbil.eus | ✉erregistroa@usurbil.eus | 🌐@usurbiludala

## Kea. Kezka

Xabier Arregi Iparragirre | Usurbilgo alkatea

“ Aire garbiak bira nazan” lema erabiltzen dugu usurbildarrok, errotak eskuetan ditugula, arnasten dugun aireak garbia izan behar duela eskatzeko. Urteak dira airearen kalitateaz ardura erakutsi dugula, hainbat arrazoi direla medio: erraustegiaren inposizioa, herrian diharduten zenbait enpresaren ke-emisioak, autoen erabilerara neurritz gaindikoa...

Kea oso presente dago gure egunerokoan, eta herritarrok adierazi diguzue zuen kezka, egonezina eta haserrea. Udala jakitun da. Testuinguru horretan, berriki zenbait erabaki eta gertakari kateatu dira, egoeraren adierazle direnak nabarmen.

Batetik, UCINen ke difusoen emisioa eteteko obra baten lizentzia eman dio Udalak enpresari. Ke difuso horiek teila-tutik ateratzen dira, mantenimendulabeak sortuta. Urteak daramatza Udalak ke horiek kontrolatzeko eskatzen eta presionatzen, eta, hainbat ahaleginen ondorioz, ke horiek ondo jasotzeko suburua edo kanpaia jartzera doa enpresa abuztu honetan. Baimenean esaten denez, kanpaia eta estalki berriek itxita egon behar dute, ke difusoen irteera eragozteko. Tximinetako filtro sistema hobetzeko lanak ere egingo dira.

Obra horiekin batera, UCINera iristen den aluminiozko txatarra busti ez dadin, biltegi bat eraikitzeko baimena ere bideratu da.

Tramite horiek lantzeaz bat, uztailearen 19ko ilunabarrean behe-lainoa balitz bezala zabaldu zen herrian ke-lainoa. UCINen zuen sorburua. Labetik jasotako zepak istripuz lurrera erori, eta oxigenoarekin kontaktuan jarri zirene-



Alkatea eta udaltzainak, Ucinen.

an sortu zen kealdi izugarria. Susto galanta. Udal ordezkariok bertatik bertara ikusi genuen gertatutakoa, eta Udalak abiatua du erantzukizunak eta neurri zuzentzaileak eskatzeko prozedura.

Eta, biharamunean, herritar talde batek deituta, UCINen isurketa kutsakorrak salatzeko elkarretaratzea egin zen. Herri aktiboa plazara agertu zen berriz ere. Elkartutakoek neurri eraginkorrak eskatu zituzten kutsadurari aurre egiteko. Hor dira herritarrak, maila eta ardurara desberdineko herri-erakundeak, eta enpresak. Hor da arazoa. Ezin da beste aldera begiratu, eta aktore bakoitzak jakin behar du zein den bere egitekoa eta erantzukizuna. Bereziki, Eusko Jaur-laritzaren Ingurumen Sailak herritarren bizi-kalitateaz eta ingurumenaz duen ardura bere gain serio hartu, eta kontrol- eta zaintza-neurriak zorrotz bete beharko lituzke, hainbatetan eskatu diogunez.

Bai, gaur, hemen, neurriak behar ditugu, baina neurriak benetan eraginkorrak izango badira denok jarri behar dugu guretik, enpresetatik hasita.



@xarregi  
alkatea@usurbil.eus

La calidad del aire es una cuestión que preocupa. El Ayuntamiento es consciente del enfado que suscita entre la ciudadanía la emisión de humos. En este contexto, este mes se han dado una serie de circunstancias que ponen de relieve la vigencia del problema. Por un lado, el Ayuntamiento ha concedido a la empresa UCIN una licencia de obra con el fin de evitar la emisión de humos difusos, que salen directamente por el tejado procedentes del horno de mantenimiento. El Ayuntamiento ha exigido reiteradamente a la empresa que controle esa emisión y, según lo planificado, en agosto se instalará una campana que recoja esos humos. Tanto la campana como la cubierta serán cerradas para evitar la salida de humos. También se mejorará el sistema de filtrado de las chimeneas. Asimismo, se ha aprobado la construcción de una nave que cubra la chatarra de aluminio que llega a UCIN, para evitar que se moje.

El 19 de julio una nube de humo procedente de UCIN cubrió el casco del pueblo. Según lo que pudimos ver in situ, la escoria recogida del horno se esparramó por el suelo accidentalmente, y el contacto con el oxígeno provocó la humareda. Hemos activado el procedimiento para esclarecer lo ocurrido, las responsabilidades y, en su caso, las medidas correctoras.

El día siguiente se convocó una concentración popular para denunciar las emisiones contaminantes de UCIN. Una vez más, el pueblo ha salido a la calle en señal de protesta. Los y las concentradas pidieron medidas eficaces para hacer frente a la contaminación.

A los agentes les toca jugar su rol, tanto a la ciudadanía como, sobre todo, a las distintas instituciones y a las empresas. No se puede mirar hacia otro lado. En particular, el Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco debería asumir su responsabilidad y ser estricto en la puesta en marcha de todas las medidas de control y vigilancia. Es hora de que se tomen medidas, pero para que sean realmente eficaces debemos colaborar todos los agentes, empezando por las empresas.



Mitxelingo lur eremuan kokatuko dira bi enpresak. Pabiloi handiena Elkarrena da eta beste lau pabiloiak Gureak enpresarenak.

# Elkar eta Gureak enpresak Usurbilera datoz

Uztaileko osoko bilkuran hasieraz onartu zen, aho batez, Usurbilgo Udala, Michelin, Gureak eta Elkarren arteko hirigintza-hitzarmena. Alkatearen esanetan, onurak baino ez ditu ekarriko proiektuak: "Kultura eta inklusibitatea ardatz izateaz gainera, lanpostu berriak sortuko ditu".

**G**aur egun hutsik dagoen Michelingo lur eremuak jardura ekonomiko berriak hartuko ditu epe motzean. Elkar eta Gureak euskal enpresak Usurbilgo lur horietan kokatuko dituzte euren egoitzak eta jardueren atal nagusiak. Hain zuzen, uztaileko ohiko osoko bilkuran, aho batez, argi berdea eman zitzaion tramitazioaren lehen urratsari, hau da, hasieraz onartu zen proiektu hori aurrera eramateko hirigintza-hitzarmena, Usurbilgo Udalak, Michelinek, Gureak-ek eta Elkar Fundazioak izenpetutakoa. Hitzarmen horrek, gainera, kontsolidatu egiten du Michelinek aldameneko lur eremuan egun duen jardura. Hortaz, proiektu berri honek ez dio ezertan eragingo.

Xabier Arregik proiektuaren nondik norakoak azaldu ditu. Lehenik, Gureak enpresak azaldu zuen interesa, eta, gerora, Elkarrek. Elkarriketat abiatu, eta "berehala" sortu zen elkarlanerako giroa. Beraz, hasieratik erakutsi dute alde guztiek interesa eta gogoia, eta udal-gobernuak bereziki landu duen proiektua izan da. "Ez da bat-batean sortu. Bilatutako proiektua izan da. Zaindua eta mimo handiz landua, izan ere, euskal kultura eta balio sozialak, inklusibitatea kasu, lantzen dituzten enpresak Usurbilera ekarri nahi genituen. Ez genuen edozer gauza egin nahi eremu horretan". Arregiren

esanetan, halakoetan ohikoa eta errazena izaten da merkataritza-gune handiei edota hotelei ematea lehentasuna. "Ingaruari begiratu besterik ez dago zer-nolako proiektuak ari diren garatzen".

## "Bilatutako proiektua izan da. Zaindua. Usurbilgo izaera eta balioekin bat dator"

Xabier Arregi Iparragirre

Usurbilgo alkatea

Udal-gobernuak, ordea, beste eredu sozioekonomiko baten aldeko apustua egiten du, eta proiektu honek Usurbilgo herri-izaera eta balioekin bat datorrela uste du Arregik. "Euskara, kultura, gizarte-balioak sustatzen dituen proiektua da".

### Hirigintza-proiektu berritzailea

Luze jo du hirigintza-proiektua zehazteko lanketak, baina emaitzarekin oso gustura daude udal-ordezkariek. Alkatearen esanetan, "Udala bete-betean inplikatu da proiektuaren zehaztapenean". Gestore aktiboa izan dela eta oso proiektu



- 1- Helburua: Euskararen eta euskal kulturaren sorkuntza, sustapena eta garapena modu eraginkorren bultzatzeko asmoz sortu zen Elkar Fundazioa.
- 2- Sorrera: Fundazioa 1996. urtean sortu zen. Elkar argitaletxea, ordea, 1972. urtean.
- 3- Giza taldea: 433 langile
- 4- Fakturazioa: 120 milioi euro



- 1- Helburua: Ahalmen desgaitasuna duten pertsonen behar bezala egokitutako lan-aukera egonkorak sortzen eta kudeatzen ditu GUREAK euskal enpresa-taldeak. Nagusiki, industriaren, zerbitzuen eta marketinaren sektoreetan jarduten du.
- 2 - Sorrera: 1975. urtean
- 3- Giza taldea: 5.137 pertsona
- 4- Fakturazioa: 201 mila milioi



Proiektuaren oin-planoa.

be-rritzailea lortu dutela dio, “alde guztien ahaleginari esker”. “Hirigintza- eta lurralde-antolamenduaren ikuspegi merkantilistak albo batera utzi, eta espazio publikoaren erabilerari, berrerabilerari azken batean, garrantzi handia eman diogu”. Ildo horretatik, Jone Miner udal-arkitektoak azaldu du ez zutela ohiko industriagune bat egin nahi. “Irizpide garbiak genituen eremu horretarako”. Bost ezaugarri nabarmendu ditu:

1) **Hiriarekiko konexioa bermatzea.** “Inguruek elkarri eragitea nahi genuen. Irekitasuna bermatu eta kalitatezko espazio publikoa sortu. Esaterako, Urbildik Oria ibaira doan oinezko pasabidea osatuko da”, zehaztu du Jone Miner arkitektoak.

2) **Lurraren optimizazioa eta erabilera nahasketa:** Jarduera ezberdinak hartuko ditu eremu horrek, hala nola tailerrak, bulegoak, hezkuntzarako eraikina eta ekipamenduak. “Jarduera monotonoek erabilera mugatzen dute, eta zerbitzuak eskaintzeak perfil ezberdineko jendea ibiltzea ahalbidetzen du”.

3) **Biodibertsitatea eta geografia-balioko mantentzea.** Alde batetik, ikuspegi paisajistikoari erreparaturata, hirigintza agresiborik ez egitea zaindu da nagusiki, eta, bestetik, inguruko eremuekin loturak eta integrazioa bermatuz, guner berde berriak sortzea sustatu da. Halaber, Oria ibaiaren antolamendu berriaren barneratu dute. “Handik errekatxo bat pasatzen da eta inguruan berdegune bat sortuko da”.

4) **Mugikortasun jasagarria bultzatzen duen eremua:** “Garraibide jasagarriari ere toki berezia eman nahi izan diegu, oinezko eta bizikletei, bereziki”, dio Minerrek.

5) **Egonkortasun soziala bermatzea:** “Inklusibitate- eta genero-irizpideak ere aintzat hartu ditugu hiri-antolamenduan, menpeko pertsonen eta desgaituen autonomia errazteko, eta zaintzarekin lotutako ardurak errazteko”.

### 950 lanpostu inguru

Gureak eta Elkarrek 950 lanpostu inguru izango dituzte Usurbilen; horietatik hainbat lehendik daudenak birkokatuko dituzte eta beste berri batzuk sortuko dituzte. Elkarri dagokionez, Usurbilen pilotuko du bere jarduera, bai biletetgia bai bulegoak. Dena pabiloi bakarrean. Gureak-ek, bere aldetik, lau pabiloi eraikiko ditu: elektronikakoa, marketing-erako, muntai-lanetarako eta hezkuntza (langileei formazioa eskaintzeko gunea) eta zerbitzuetarako. “Usurbili onura baino ez dio ekarriko. Enplegu berriak sortuko dira, eta, gainera, ahul dauden sektoreak indartzeko balioko du. Duen dimentsio-agatik eskualdeko, edo, are, herrialde mailako proiektu garrantzitsutzat hartu behar da. Eta proiektu hau Usurbilera ekartzea lorpen handia da herriarentzat”, azpimarratu du Xabier Arregik.

# Las empresas Gureak y Elkar se trasladan a Usurbil

*El pleno municipal acaba de aprobar inicialmente el convenio urbanístico firmado por el Ayuntamiento de Usurbil, Michelin, Gureak y la Fundación Elkar. En opinión del alcalde, “traer este proyecto a Usurbil es un logro muy importante para el municipio”.*

Las empresas Gureak y Elkar trasladan a Usurbil gran parte de su actividad económica. Exactamente, a la parcela que se encuentra libre en los terrenos de Michelin. Tanto Elkar como Gureak son dos entidades sin ánimo de lucro con una clara proyección social y cultural; de difusión de la cultura vasca la primera, y de reinserción del colectivo de discapacitados la segunda. En el pleno de julio se aprobó inicialmente el convenio urbanístico firmado entre los cuatro agentes: el Ayuntamiento, Michelin Gureak y Elkar.

El convenio regula, por una parte, la ordenación urbanística que se ejercerá bajo los siguientes criterios:

1) Criterios vinculados a la estructura física urbana, con el objetivo de crear un

espacio público de calidad y convertirlo en espacio de convivencia del ocio, del ejercicio, del intercambio y de otros múltiples usos.

2) Criterios vinculados a combinar diferentes usos de actividades económicas así como comercio.

3) Criterios vinculados a la biodiversidad, con el objetivo de crear zonas verdes que conecten con el territorio circundante y el entorno del río Oria.

4) Criterios para una movilidad sostenible, priorizando las redes peatonales y de bicicletas y tener en cuenta el transporte colectivo.

5) Criterios vinculados a la estabilidad social, introduciendo la perspectiva de género en la ordenación y diseñar el espacio público desde la perspectiva de un urbanismo inclusivo.

Por otra parte, el convenio, consolida, a su vez, la actividad actual de Michelin.

El alcalde calificó el proyecto urbanístico de “innovador” y aseguró que este proyecto encaja perfectamente con los valores e identidad de Usurbil. “Lo más fácil hubiera sido instalar otro tipo de actividad. Basta con ver lo que hay alrededor. Hemos rehusado a ello, y hemos buscado otra cosa”. Elkar y Gureak posibilitarán la generación de aproximadamente 950 nuevos puestos de trabajos directos: parte de ellos serán recolocados, y otros serán nuevos. “Es reseñable la dimensión y trascendencia de este proyecto que supera con creces el ámbito municipal. Estamos hablando de un proyecto estratégico inclusive para Gipuzkoa”, recalca Xabier Arregi.



# Aranerrekako ingurua biziberritzeko proiektua abiatu du Udalak

Añarberen diru-laguntza berezi bat baliatuko du Udalak erreka-aren ur kalitatea aztertu eta garbitzeko. Ekolurrei adjudikatu dizkiote lanak.

**A**ranerrekako erreka eta haren ingurua biziberritzeko asmoari ekin dio Udalak. Horretarako, hainbat egitasmo abiatuko ditu hilabeteotan; batetik, Aranerrekako uraren kalitatea aztertuko du eta erreka garbitzeko neurriak hartu; eta, beste alde batetik, Errekaxikiko parkean jolasgune bat jarriko du. Hain zuzen, Añarberko Urak egitasmo garrantzitsua abiatu du, 50. urteurrena dela eta: mankomunitateko udalerriek urarekin zerikusia duten

## “Kale Irekiak prozesuan gaztetxoek proposatu zuten jolasgunea da egingo duguna”

Jone Urdanpilleta

Obrak eta Zerbitzueta zinegotzia

ekintzak finantzatzeko programa. Hain justu, Usurbilgo Udalak diru-laguntza hori baliatuko du Aranerrekako garbitzeko, eta Ekolurrei adjudikatu diote zeregin hori. Hala, lehen urratsa erreka-aren ur kalitatea aztertzea izango da. Horretarako, lehenik, saneamen-

du azpiegiturak ikuskatuko ditu Ekolurrek. Gaur-gaurkoz ez dira baserri asko erreka-aren zuzenean isurtzen dutenak, baina, edozein kasuan, ikuskaritza-lanak egingo dituzte epe laburrean, isurketak neurtzeko. Seguruena, abuztuan bertan. Behin egoera eta arazoak identifikatuta, udazkenean Aranerrekako ur kalitatea hobetzeko ekintzak gauzatuko dituzte. Lanak abendurako amaituta izatea aurreikusten da. Orotara, proiektuak 10.000 euroko aurrekontua du.

### Gaztetxoek proposamena

Erreka garbitzeaz gainera, ingurua ere biziberrituko du Udalak, eta espazio horri aire berria eman. Lehenik, Kalezarrera doazen eskailera berritu ditu. Amaitzeaz daude lanak. Bestetik, eremu berdean jolaserako elementuak jarriko ditu. “Hain zuzen, espazio publiko berrantolatzearen egindako Kale Irekiak parte-hartze prozesuan herriko haurrekin egindako saioetan egindako eskaera izan zen horixe bera: parkean jolaserako elementuak jartzeko”, gogorarazi du Jone Urdanpilleta zinegotziak. Urak Bide taldeak osatu du proiektua. Hala, ingurua kontuan hartuta eta integrazioa zainduz atonduko da parkea.



Jolasgune bat egingo dute Erreka Txikin.

## Un nuevo uso en Aranerrekako

El Ayuntamiento impulsa un nuevo proyecto para el entorno de Aranerrekako, con el objetivo de reforzar la relación de la ciudadanía con este curso fluvial y dotar ese espacio de un nuevo aire. El arroyo Aranerrekako, que atraviesa el casco urbano de Usurbil por lo que tiene una gran presencia en la cotidianidad de Usurbil, adolece de algunos problemas de calidad de aguas. Es por ello que, en primer lugar, va a realizar un examen de la calidad del agua y de las infraestructuras de saneamiento situadas en la cuenca, para poder llevar a cabo actuaciones que permitan la mejora de la calidad de sus aguas. Estas actuaciones se van a realizar gracias a una subvención especial de la Mancomunidad de las Aguas del Añarbe, a raíz de su cincuenta aniversario. La empresa Ekolur será la encargada de dicho estudio, que empezarán en agosto. Y, por otra parte, el Ayuntamiento tiene previsto construir un parque en Erreka Txiki, de una manera integrada en el entorno, tal y como solicitó la juventud en Kale Irekiak.



## “Ez gaituzte hartu aintzat”

Gipuzkoako Foru Aldundiak Buruntzaldeko autobus-zerbitzuan egin nahi dituen murrizketak salatu dituzte beste behin ere Andoain, Hernani eta Usurbilgo udaletako ordezkariak, Diputazioaren aurrean. Prozesu osoan zehar gardentasunik gabe aritu direla eta udalek, artean, ez dutela idatzizko dokumentazio ofizialik jaso salatu dute. “Dakiguna ahoz esan zaigu edota prentsaren bidez. Ez dugu parte hartzeko aukerarik izan. Ez gaituzte aintzat hartu”, salatu du Xabier Arregi alkateak. Usurbilen 2.000 alegazio aurkeztu zituzten herritarrek proiektuaren aurka, baina haiei ere ez zaie erantzun. Proiektua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dutenean jakingo omen dugu erantzuna. Edonola ere, Usurbil-Ospitaleak linea kenduko dutela dirudi, “erabiltzaile gutxi dituelako”. Arregik gaitzetsi egin du erabakia, sektore “ahulenak” kaltetzen dituelako eta irizpide ekonomizistak baztertzeko eskatu die.